



**Ekosistema  
Hezitzailea**

## IKASLEEN FOROAN EGINDAKO DEKALOGOIA

### TRATU ONAK BULTZATZEKO DEKALOGOIA

1. **AGURTU** . Ezagunen bat ikusten duzunean, nonbaiten sartzera koan, norbait ezagutzerakoan....
2. **IRRIFARRE EGIN**. Aurpegi alaiak eta umoreak erlazioak errazten ditu. Alaitasunak erakartzen gaitu.
3. **ENTZUN eta ULERTZEN SAIATU**. Denek dute zerbait garrantzitsua esateko. Enpatia, besteen egoerak ulertu.
4. **DOINU EGOKIAN** eta **INOR MINDU GABE HITZ EGIN**. Nire nahiak era egokian azaltzen ikasi behar dut.
5. **MESEDEZ** eta **ESKERRIK ASKO** .Tratu onaren hitz magikoak.
6. **LAGUNDU. ZAINDU**. Zure laguntza beti baliagarria izango da.
7. **ZORIONDU**. Besteengan autoestimua eta konfiantza indartzen duzu.
8. **BARKAMENA ESKATU** eta **KONPONDU**. Oker zeundela, gaizki egin duzula onartzeak handitu egiten zaitu. Jokabide egokien aukerak aztertu.
9. **DESBERDINTASUNAK ONARTU**. Aniztasunak aberasten gaitu.
10. **ATSEGINA IZAN**. Eman besteei jaso nahiko zenukeen tratua.